



ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY



2019KO EKAINAREN 12KO UDAL OSOKO OHIKO BILKURA

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2019ko ekainaren 12an, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez
- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Miren Amaia Askasibar Agirre

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAIEN ZERRENDA:

KONTROLEKO ZATIA:

- AURREKO AKTA AGIRIEN ONARPENA
- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA
- ERREGU ETA GALDERAK

KONTROLEKO ZATIA:

- AURREKO AKTA AGIRIEN ONARPENA

Osoko bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten.

- 2018-07-04 ezohikoa.
- 2018-09-19 ezohikoa.
- 2018-12-12 ezohikoa.
- 2019-02-19 ezohikoa.



- 2019-04-02 ezohikoa.
- 2019-04-30 ezohikoa.
- 2019-05-23 ezohikoa.

Oharrik aurkeztu ez direnez, idatzita dauden eraberean ahobatez onartzen dira.-

- ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42. artikuluan adierazten duen ondorioetarako, Batzarrari, ohiko azken bileraz gero, Alkatezak eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio. Hain zuzen ere 2018/022tik 2018/083 eta 2019/001tik 2019/033 dekretura doazenak, biak barne, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

ERREGU ETA GALDERAK.-

Puntu honetan, lehendakariak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzotzen galde-
eskeak egin ditzaten.

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkezten.

Eta, 20.30 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jo zuen, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2019ko ekainaren 12a.

O.e.
Alkateak

Jose Angel Urkizu Odriozola,

Idazkari-Kontu-hartzaileak,

Maria Pilar Garmendia Miguel